



Hirugarren Sektoraren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco del  
Tercer Sector Social



## JARDUNALDI-TAILERRA

### **GARAI DIGITALA EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEAN: ERALDAKETA DIGITALERAKO DIAGNOSTIKO ETA MARKOA**

**HSSEB eta APTEsek antolatua**

#### **Data eta tokia:**

Jardunaldia ekainak 6an ospatuko da Gasteizen, Simone de Beauvoir elkartean etxean.

#### **Planteamendua:**

Digitalizazioan alor ezberdinetan (ekonomia, komunikabideak, aisialdia) etengabe aurrera doan gizarte batean, Euskadiko Hirugarren Sektoraren Sozialeko (aurrean EHSS) erakundeak ez dira geratzen erantzun digitalen eransketa mailakatuetik at.

EHSSko erakundeek gogoeta ordenatu bat egin behar dute honen inguruan: nola bete haien eginkizuna garai digital honetan bizitzeak dakarren eraldaketa kulturala kontuan izanik. EHSSko erakundeak ekintza eragile garrantzitsuak dira, kontuan hartu beharrekoak garai digital honetan inor atzean ez uztea aipatzen denean, bai zerbitzu horniduran eta bai gizarte eraginean, talde zaurgarrien gizarteratza zuzendutako bere misioagatik edo pertsona jasotzaileekiko hurbiltasun eta harremanagatik.

Horregatik, ezinbestekoa da ulermen partekatu batera heltzea digitalizazioa eta eraldaketa digitala zer den ezberdintzeko: lehenengo eta behin EHSSko erakunde berberak gizartearen digitalizazio eszenatoki gorakorrek halabeharrez interpelatuko dituelako. Eta bigarrenaz, jite ezberdineko beharrian edo arazoei emandako erantzun teknologikoen ugaritzeak organizazioek aprobeztatu dezaketen botere bat delako, haien eginkizuna hobeto betetzeko (kasu guztietan, pertsona jasotzaileen bizi kalitatea eta ongizatea delarik).

#### **Jardunaldi-tailerraren helburuak eta egitura**

Jardunaldiaren helburu bezala dauka eraldaketa digitalaren erronkaren inguruko gogoeta partekatze esparru bat erraztea, non EHSSko erakundeek, beste gizarte agente batzuekin batera, aurrera egin dezaten eraldaketa digitalean oinarritzeko moduan bere zeregina aurrera eramateko.

Xede hau 4 helburuetan zehaztu daiteke:

1. **EHSSko egoeraren diagnostikoa** Eraldaketa Digitalaren erronkaren inguruan **adieraztea**.
2. **Elkarrekin hausnartzea** diagnostiko honetatik abiatuz proposatzen diren orientabideen inguruan.
3. EHSSko erakundeek eraldaketari garai digitalean ekiteko **marko proposamena partekatu**
4. Eraldaketa Digitalaren inguruan esparru honetatik sortzen diren **aukera konkretuak ikertu**.



Hirugarren Sektorre Sozialaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco del  
Tercer Sector Social



Jardunaldi honetan parte hartzeak honetarako balio izatea nahi dugu:

- **Eraldaketa digitalaren eta digitalizazioaren artean ezberdindu:** zer ekartzen du haietako bakoitzak hirugarren sektore sozialeko erakundeentzat?
- **Eraldaketak, irtenbide digitalak ekartzeaz gain, aldaketa kultural bat dakarrela ulertzea**
- **Eraldaketa digitalaren maila ezberdinak ezagutzea:** erakundeen zein alorretan hedatu daiteke? Nolako euskarriekin?
- **EHSSko erakundeak bere lana betetzeko eraldaketa digitalean oinarritu daitezela baimentzen dituzten gako edo laguntzak partekatzea:** nolako aukerak ekarri ditzake teknologia digitalaren ezarpenak? Nolako pausuak eman daitezke eraldaketa digitala erakundeen misioarekin bat egiteko?

Helburu hauek kontutan izanik, jardunaldia bi parte ezberdinetan egituratu dugu:

1. Lehenengo parte Euskadin eraldaketa digitalari buruz egindako diagnostia partekatzeari emango zaio, eta baita eraldaketa digitala ordenatzeko marko bat, eta honek dakarrena:

- a) Diagnostikoaren egoera datuen arabera, eraldaketa digitala, bere dimentsioak, erakundeen ekintzetan izan ditzakeen erabilerak etab. ulertzeko elementu nagusiak aurkeztuko dira.
- b) Eta garatutako markoarekin jarraitzea eraldaketa ordenatu eta iradokitzeko

1. Bigarren parteak tailer formatua izango du, eta bertan

- a) Aurreko partean entzundakoaren inguruan hausnartuko da elkarrekin: zer da gehien motibatzen duena? Zer da kezka gehiago sortzen duena? Ba dago esan gabe geratu den zerbait garrantzitsu?
- b) Erakundeetako partaideak eraldaketa digitala adierazten duen lerro batean kokatuko dira, eta bere kokapenaren arrazoa azalduko dute. Hortik abiatuz, taldeetan egingo dute lan:
- c) Zer egin daiteke? Zer nolako laguntzak behar dira? Zer nolako laguntzak eskaini daitezke (administrazio publikoa, teknologo enpresak, etab.)?
- d) Galderak talde irekian: zer daramazu zurekin tailer honen ondoren? Zer egin dezakezu bihar bertan zure erakundearen eraldaketa digitalaren inguruan, zeintzuk dira berehala eman ditzakezuen pausuak? Zer eskaini dezakezue zure erakundearen eraldaketa digitalaren erronkari buruz?

Jardunaldiaren lehenengo parte grabatua izango da eta Hirugarren Sektorre Sozialaren Behatokiko web orrialdera igota izango da, zuzenean parte hartu ez dutenek geroago ikusi ahal izateko.

## Programa



Hirugarren Sektorre Sozialaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco del  
Tercer Sector Social



**10:00** Partehartzaileen harrera.

**10:05** Jardunaldiaren aurkezpena

**ADRIANA MARTÍNEZ.** APTES

**LUCÍA MERINO.** Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia.

**10:10** DIAGNOSTIKOA: EHSSko ERAKUNDEEEN EGOERA ERALDAKETA DIGITALAREN  
ERRONKAREN AURREAN.

**LUCÍA MERINO.** Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia.

**10:30** GARAI DIGITALEAN ERALDAKETARAKO MARKOA

**ADRIANA MARTÍNEZ eta SANTI PISONERO.** APTES. Marko dokumentua

**10:50** TAILERRAREN aurkezpena eta DINAMIKA 3 momentuetan:

Entzundakoaren inguruan gogoeta partekatua

Eraldaketa digitalaren inguruan kokapena

Galderak talde txikietan eta ondorioak

**11:55** JARDUNALDIAREN ITXIERA